

ZERBITZU PUBLIKOETAN EMAKUME ETA GIZONEN ARTEKO ORDEZKARITZA OREKATUA BERMATU

SINDIKALGINTZA MARTXAN - 2024KO URRIA

Zerbitzu publikoetako langileak sektore jakin batzuetan biltzen dira: hezkuntza, osasuna edo zaintza-lanak, non emakumeen presentzia %71, %75 eta %80tik gorakoa den, hurrenez hurren. UGT Zerbitzu Publikoetatik uste dugu beharrezkoa dela emakume langileen ekarpena aitortzea eta, halaber, sexuaren araberako desberdintasun eta banaketa sustatzen duten arrakala guztiak ezabatzearen alde egitea. Horregatik eskatzen dugu:

1.- BERTINTASUNA NAGUSI IZANGO DITUEN IBILBIDE PROFESIOALEN GARAPENA AHALBIDETUKO DUEN HEZKIDETZA SISTEMA SUSTATZEA.

Ikerketek egiaztatzen dutenez, neskak ikasketa jakin batzuk aukeratzera bultzatu egiten ditu gizarteak, genero-estereotipoetan oinarrituta. Hala, hezkuntza, osasuna, ongizatea eta humanitateak aukeratzeko dituzte ikasketa gisa edo lanbide heziketarako. Mutilek, aldiz, zientzia, teknologia, ingeniari eta matematika-ikasketak (STEM) aukeratzeko joera dute. Horrek eragina du diru-sarreretan. Hori dela eta, ezinbestekoa da sustatzea, bai hezkuntza-sisteman, bai lan-merkatua, lanaren banaketa sexuala ezabatzeko neurriak, eta emakumeen eta gizonen presentzia orekatua sektore guztietan.

2.- HEZKUNTZA-SISTEMAN ETA LAN-MUNDUAN KULTURA INKLUSIBOA GARATZEA.

Garrantzitsua da eskubideak bete eta diskriminazio-errealitateak prebenitu behar dituzten erakundeetan kultura erabat inklusiboa indartzea. Arreta berezia eskainiko zaie diskriminazio anizkoitzaren faktoreei, hala nola jatorriari, etniari, desgaitasunari, indarkeria matxistaren biktima izateari edo guraso bakarreko familia izateari, besteak beste.

3.- ZERBITZU PUBLIKOETAKO LANGILEEN ENPLEGUAREN KALITATEA BERMATZEA.

Gizartearentzat estrategikoak diren sektoreetako lan-baldintzak, hala nola zaintzari lotutakoak non emakume langileen lana funtsezkoa den gizarterako, ezegonkorrak dira: partzialtasuna, behin-behinekotasuna, txanden sekuentzia txarra eta ordainsari txikia. Administrazio publikoek eta enpresek, politika publiko osoen bidez, neurri egokiak hartu behar dituzte gizartearen aitortza, lan-egonkortasuna eta bidezko ordainsariak bultzatzeko.

4.- ZERBITZU PUBLIKOETAN SOLDATA-ARRAKALA EZABATZEA.

Soldata-desberdintasuna da diskriminaziorik iraunkorrena lan-merkatuan; zerbitzu publikoei lotutako jardueretan, batez besteko arrakala %22koa da. Ordainsarien auditoriak, ordainsarien erregistroa edo lanpostuen balorazioa, besteak beste, aplikatzea funtsezkoa da egoeraren irismena diagnostikatzeko, hura ezabatzeko neurriak diseinatze aldera, bai eta lanpostuak sustatzeko eta hornitzeko sistemak sortzeko ere, berdintasun-printzipioa betetzen duten metodo gardenekin.

5.- ZAINZA SISTEMA PUBLIKO FEMINISTA BULTZATZEA.

Gure gizartean pertsonen bizi-baldintza duinak bermatzeak lehentasun politikoa, soziala eta ekonomikoa izan behar du. Pertsona guztientzako unibertsala, eskuragarria, bidezkoa eta hurbila izango den zaintza-sistema publikoa garatzearen aldeko apustua egiten dugu. Funtsezko zerbitzu publikoetan egindako inbertsioa indartu behar da, eta ikuspegi feminista txertatu behar da administrazio publikoen aurrekontuetan, ordaindu gabeko zaintzak aitortu, murriztu eta birbanatu daitezzen.

6.- ERANTZUNKIDETASUNEAN AURRERA EGITEA.

Emakumeek ordaindu gabeko lan-erantzukizun gehiago hartzen dituzte beren gain, eta horrek ondorioak ditu emakume langileen garapen profesionalean, haien lanaldiak murriztuz edo lan-merkatutik aldentuz. Politika integralak egin behar dira kontziliaziorako eta erantzukidetasunerako eskubidea bermatzeko, prestazio berdinak, besterenezinak eta ehuneko ehunean ordainduak barne, soldatetan, osasunean eta pentsioetan ere eragina duen denbora-tartea murrizteko.

7.- NEGOZIAZIO KOLEKTIBOA ETA BERDINTASUN-PLANAK INDARTZEA.

Sindikalismoa emakumeen eta gizonen benetako berdintasunerako funtsezko gunea da. Beraz, ezinbestekoa da ikuspegi feministarekin hitzarmenak eta berdintasun-planak negoziatzeko behar diren baliabideak bermatzea. Beharrezkoa da berdintasunerako prestakuntza duten ordezkari sindikalak sartzea lantokietan. Ordu sindikalekin, berdintasuna eraginkorra egiten duten neurriak ezartzeko eta horien jarraipena egiteko.

